

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 51/2023 Foru Dekretua abenduaren 26koa. Onestea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak ezartzen duenez, kostu bidezko edo irabazizko eskualdatzeen kasuan, ondare elementuen eskuratze balioa erregelamendu bidez onesten diren koefizienteak aplikatuz eguneratuko da, batez ere erosi zirenetik gertatutako kontsumoaren prezioen indizearen bilakaera eta eskualdatze ekitaldirako zenbatetsitakoa kontuan hartuta.

Hori dela eta, foru dekretu honen xedea da 2023ko ekitaldian egingo diren eskualdatzeei aplikagarri izango zaizkien aipatutako eguneratze koefizienteak ezartzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko ondare irabazi edo galeren zenbatekoa kalkulatzeko.

Bestalde, Sozietateen Gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak ezartzen duenez, ibilgetu materialaren, ukiezinaren zein higiezinetakoa inbertsioen ondare elementuak eskualdatzean lortutako errenta positiboak zerga oinarrian sartzeko, errenta horietatik honako hau kenduko da, betiere errenta horien mugaraino: eskualdatutako elementuari dagokionez, legez baimendutako azken eguneratzetik, edo elementu hori eskuratu zen egunetik, gerokoa bada, diruak izandako balio galeraren zenbatekoa; zenbateko hori erregela jakin batzuen arabera kalkulatu da. Erregela haietatik lehenak hau ezartzen du: eskualdatutako ondare elementuen eskuraketa prezioa edo ekoizpen kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak arauz ezartzen diren koefizienteaz biderkatuko dira.

Horren ondorioz, foru dekretu honen xedea da erregelamenduzko garapen hori egitea, adierazi diren koefizienteak ezarriz, 2024an hasten diren zergaldien barruan egindako eskualdaketei aplikatzeko.

Foru Dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia eta efikazia printzipioei dagokienez, arau hori beharrezkoa da aipatutako eguneratze koefizienteak onesteko. Bat etorri proportzionaltasun printzipioarekin, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta efizientzia printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatuagoa ahalbidetzen du. Gardentasun printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurrean jartzearen bidez.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inaktuaren txosten laburtua aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 2024ko ekitaldian aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 45.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 45.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, honako hauek izango dira 2024ko ekitaldian egiten diren eskualdaketei aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak:

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1994 y aurrekoak	1,945
1995	2,066
1996	1,989
1997	1,945
1998	1,902
1999	1,850
2000	1,787
2001	1,721
2002	1,660
2003	1,614
2004	1,567
2005	1,517
2006	1,467
2007	1,426
2008	1,370
2009	1,366
2010	1,344
2011	1,303
2012	1,274
2013	1,254
2014	1,252
2015	1,252
2016	1,252
2017	1,228
2018	1,208
2019	1,197
2020	1,197
2021	1,161
2022	1,074
2023	1,036
2024	1,000

Dena den, ondare elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratu bazen, 1995ari dagokion eguneratze koefizientea aplikatuko zaio.

2. artikulua. 2024an hasten diren zergaldietarako aplikagarri diren moneta zuzenketako koefizienteak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 40.9 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako

Bat. 2024. urtean hasten diren zergaldietarako, hauek izango dira Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 40.9 artikuluan xedatutako koefizienteak:

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak	3,077
1984	2,795
1985	2,580
1986	2,429
1987	2,314
1988	2,210
1989	2,105
1990	2,022
1991	1,955
1992	1,896
1993	1,880
1994	1,843
1995	1,759
1996	1,696
1997	1,668
1998	1,668
1999	1,608
2000	1,500
2001	1,479
2002	1,453
2003	1,432
2004	1,415
2005	1,389
2006	1,363
2007	1,316
2008	1,284
2009	1,270
2010	1,267
2011	1,252
2012	1,241
2013	1,234
2014	1,234
2015	1,227
2016	1,218
2017	1,197
2018	1,181
2019	1,166
2020	1,156
2021	1,144
2022	1,091
2023	1,048
2024	1,000

Bi. Aurreko apartatuan ezarritako koefizienteak honela aplikatuko dira:

a) Eskuraketa prezioari edo ekoizpen kostuari, kasuan kasuko ondare elementua eskuratu edo ekoitzi den urtearen arabera. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntzak egin diren urteari dagokiona izango da.

b) Kontabilizatutako amortizazioei, egin diren urtearen arabera.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea eta ondorioak

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta haren artikulatuan adierazitako egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA